“Arlo desberdinetako jendea behar da, eta beste hizkuntzetan egin dena euskaraz ere egitea”

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Marie Pourquié Bidegain

Neuropsikohizkuntzalaria

Marie Pourquié Bidegain
Baiona, 1982.

- Euskal Filologiako lizentziatura (Baionan eta Gasteizen) eta **Hizkuntzaren Zientziak** lizentziatura eta Masterra (Parisen)
- **Neuropsikohizkuntzalaritzan eta afasiologiako** ikerketa-masterra eta doktoretza Le Mirail Unibertsitatean (Tolosa, Frantzia).
- Doktoretza-ondokoa egin du Montrealeko ortofonia-eskolan eta BCBL ikerketa-zentroetan.
- Gaur egun, ikertzaile dihardu **Iker zentroan**, eta beste zenbait proiektutan ere parte hartzen du.

Nola iristen da euskal filologiako ikasle bat garuneko patologia jakin batzuk ikertzera? Hainbat bide egon daitezke; Marie Pourquié Bidegainek berea egin du, eta diziplinartekotasuna eta elkarlana zein beharrezkoak eta emankorrak diren erakutsi du.

Hain zuzen, Psikohizkuntzalaritzan ikertzen du: "Bereziki hizkuntza-patologiak aztertzen ditut, euskaraz duten manifestazioa zehazki, baina baita frantsesez eta gaztelaniaz dutena ere. Izan ere, euskaldunak elebidunak dira; hala, hizkuntza bakoitzak dituen berezitasunak aintzat hartzen dira eta elkarren artean konparatzen dira, patologiak aztertzeko eta ebaluaketa-tresnak garatzeko".

Hizkuntza bakoitzak bere egitura duenez, tresnak ere hizkuntza bakoitzaren arabera egituratu behar direla azaldu du Pourquiék: "Horregatik dira beharrezkoak hizkuntza desberdinetako hizkuntzalariak, eta patologiak hizkuntza horietan ikertu dituzten psikologo edo neurologoak, eta estadistikalariak... Arlo desberdinetako jendea behar da, eta beste hizkuntzetan egin dena euskaraz ere egitea".

Pourquié Baionan hasi zen ikasten Euskal Filologia. Gero Gasteizera joan zen, eta han ezagutu zuen Xabier Artiagoitia Beaskoetxea irakaslea. Hark hitz egin zien afasiaz. Pourquiék txikitatik ezagutzen zuen "afasia" hitza: aitak izan zuen, istripu baten ondorioz. Irakasle haren ahotik entzun zuenean, erabaki zuen hura ikertu nahi zuela: "Jakin nahi nuen zergatik kaltetzen den hizkuntza bakarrik, adimen orokorra kaltetua ez denean. Eta argi nuen, baita ere, hori euskaraz ikertu nahi nuela, euskal gramatikan ere interesa bainuen".

Beraz, arlo horretako jendearekin harremanetan jarri zen, adibidez, Itziar Laka Mugarzarekin eta Beñat Oihartzabal Bidegorrirekin, zeinak eginak zituen Hizkuntzaren Zientzietako ikasketak Parisen. Hori jakinik, Pourquiék Parisera joatea erabaki zuen, eta han ezagutu zuen George Rebuschi irakaslea.

Hari esker, euskarari buruzko lan bat egiteko aukera izan zuen. "Ergatiboari buruzko lan bat egin nuen, baina ez zuen oraindik lan egiten patologietan". Horretarako, arlo horretako aditu batengana jo zuen: Jean-Luc Nespoulous, Tolosan (Frantzia). Hark proposatu zion aztertzea afasia agramatikoaren manifestazioa euskaraz: "Asko poztu nintzen, azkenean lortu bainuen nire bi gaiak lotzea: euskararen azterketa eta hizkuntza-patologiena".

Aurrez ez zegoen gauza handirik egina, eta Itziar Laka eta Lore Erriondo Korostolaren artikulu batekin hasi zen; Erriondo izan zen afasia euskaldunengan aztertzeko lehen tresna elebiduna egokitu zuena. Gero, logopeda edo ortofonistekin ere harremanetan jarri zen, eta tesia ere egin zuen.

Jarraian, doktoretza-ondokoa egitera joan zen Montrealera, eta BCBLn ere aritu da. Orain Iker zentroan dabil, ikertzaile-lanetan, zenbait ildotan. Horrez gain, Europa mailako proiektu batean dabil Amaia Munarriz Ibarrolarekin, afasia euskaraz aztertzeko tresna bati lotuta. Eta azkenik, Marijo Ezeizabarrena Segurola eta iparraldeko ortofonista-talde batekin, proiektu bat du haur euskaldunen hizkuntza-garapen tipikoa ezagutzeko. Azken proiektu horren berezitasun bat nabarmendu du Pourquiék: "Ikerketa parte-hartzailea da. Egiten dugu lan jendearekin, eta test hau eraikitzen dugu ortofonistekin, elkarlanean". ●

sareAN+

Elkarrizketa osoa webgunean

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea — Kultura Zientifikoko Katedra / Cátedra Cultura Científica

UPV/EHU Kultura Zientifikoko Katedrarekin lankidetzan egindako atala.